

Esp. Zkia.- KE-2022-031

E.E.- 2022-00498

434/2023 ALKATETZA DEKRETUA:

Larrabetzuko Udaletxean, 2022ko bagilaren 23an.

OINARRIA: 2023ko urtarrilaren 26an BAOean 2023. ekitaldirako Larrabetzuko Udal Aurrekontu Orokorraren behin betiko onarpena argitaratu egin zen. Horretan Larrabetzuko ikastetxearen guraso elkarte den TXINPASMENDI Guraso Elkartearen, G-48828420 IFK zenbakidunaren, aldeko diru-laguntza zuzen nominatibo bat jasotzen da aurrekontuaren aurrekontu partida konkretuan (326-48100). Hau horrela elkarateak 2023ko urriaren 18an udal sarrera erregistroan E202303571 inskripzio zenbakiarekin dirulaguntzaren eskaria aurkeztu zuen.

OINARRIA: 2023ko urriaren 24ko datarekin udal kontu-hartzailtzak txostena egin zuen.

OINARRIA: Honako honeetan xedatutakoa: Diru-laguntzen 38/2003 Lege orokorraren 22.2.a) artikuluan, 887/2006 Errege Dekretuak onetsitako Diru-laguntzen Araudi Orokorraren 65. Artikuluan.

Honen bidez, Tokiko Araubidearen Oinarriak arautzen dauzan apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 21. artikuluan ezarritakoaren arabera, **HAU EBATZI DOT:**

LEHENENGOA.- Larrabetzuko Txinpasmendi Guraso Elkarteari (IFK: G-48828420); 9.000,00 euroko diru-laguntzea emongo jako, 326-48100 aurrekontuaren aurrekontu-partidea zordunduta.

BIGARRENA.- 10 laneguneko epea eman aipatutako elkarteari 887/2006 Errege Dekretuak onetsitako Diru-laguntzen Araudi Orokorraren 65. Artikuluan adierazitako betekizunak jasotzen dituen hitzarmena sinatzeko.

HIRUGARRENA.- Sinatuko den hitzarmena oinarri arautzailearen izaerea eukiko dau, eta hemen ezarritakoaren arabera kudeatu, justifikau eta arautuko da: Diru-laguntzen 38/2003 Lege Orokorra, 887/2006 Errege Dekretuaren bidez onetsitako Diru-laguntzen Araudi Orokorra.

LAUGARRENA.- Ebazpen honen barri emongo da Udalbatzeak egingo dauen hurrengo bilkuran.

Iñigo Gaztelu Bilbao
AlkateaNire aurrean,
Behin-behineko Idazkaria